

AMAIAREN

AMESGAIZTOA

Lanera joateko zazpigarren eta azkenengo eguna zen. Hurrengo astean, Amaiak atsedena hartzeko aukera izango zuen baina azkenengo egun honetan goizaldeko bostetan jaikitzeak, bizi izandako beste desprezio batzuek baino kalte gehiago egin zion. Kafea prestatzen zuen bitartean dutxatu egin zen, etxean bakarrik zegoela zekielarik. Kasu honetan, bakardadeak lasaitasuna eman zion. Haien ohe handian bakarrik lo egin zuen eta amets miresgarriak izango zituelakoan zegoen baina betiko pentsamenduek bere buruan izugarritzko eragina egin zuten eta ezin izan zuen berak nahi zuen moduan lo egin. Dutxa hartu eta gero, lehenago baino lasaiago zegoen. Kafea hartu zuenean pultsua dardaratsu zeukan.

Denbora zuen soberan lanera iristeko, hala ere, edozein momentutan ager zitekeenaren posibilitateak bihotza azkarrago joatea eragiten zion. Hori zela eta, bere mugimenduak oso zehaztugabeak ziren. Etxeko atetik irtetzeko prest zegoenean, segundu batzuk eman zituen atearen aurrean, arnasa hartu zuen eta erabakitasunaz irten zen. Bere lana, sentimenduzko bizitza, eta abarri aurre egiteko beste egoera askotan erabili zuen erabakitasun berbera. Garajera abiatu zen, baina ohi zuen bezala, eskaileretatik. Sekula ez zuen igotzeko edota jaisteko igogailua erabiltzen, beti buruan baztertuta ikustearen posibilitatea baitzeukan. Igogailuaren tartea oso txikia zen eta horrek antsietatea eta urduritasuna eragiten zion. Beharbada bere lanbideak horrelako mugimenduak egitera bultzatu zuen. Leku eta une batzuetan zuen segurtasun falta. Garajera heltzerakoan, bederatzi zenbakidun partzela hutsik zegoela ikusiz bere partzelara joan zen. Orduan, bientzako gaua oso luzea izan zela konturatu zen. Denbora soberan zuen arren, autoko sarrailan giltza sartzea kostatu zitzaion, motorra martxan jarri zuen eta lanera berandu helduko balitz bezala, ziztu bizian joan zen. Garajetik irtetzerakoan, alde batera eta bestera begiratu zuen eta jadanik kanpoan bapateko segurtasuna eta erabakitasuna nabaritu zuen.

Lanaren ingurura heldu zen eta handik berrehun metrora utzi zuen autoa. Atetik sartu zela korridoretik pasatu ziren guztiak agurtu zituen. Lan egiteko arropa aproposa jantzi zuen eta bulegora. Nagusia bazegoen bere ohiko lekuan, eta briefinga hasteko asmotan. Astebururo zoritxarreko berriak izaten ziren eta kasu honetan ez zen salbuespena. Nagusiak sexual eraso bati buruz hitz egin zien han zeudenei. Biktima berrogeita sei urteko emakumea zen eta ekintza bere etxean gertatu zen. Erasotzailea atxilotua izan zen eta emakumea, kolpe eta zaurien ondorioz, ospitalean zegoen. Une hartan, auzitegiko medikuak osasun-azterketa egin behar zion biktimari. Hori zela eta, Amaia bere lankidearekin batera, ospitalera abiatu behar zuten biktimarekin hitz egiteko. Hantxe egon ziren auzitegiko medikuak bukatu arte. Orduan, agente biak ahal zen neurrian biktima laguntzeko hortxe zeuden. Ertzainetxera eraman zuten salaketa jar zezan eta antzeko kasuetan zer egin zezakeen azal ziezaioten. Salaketa jarri ostean, harekin elkarrizketa izan zuten dena beharrezko txostenean ager zedin. Amaiak eta landikeak genero-indarkeria jasandako emakume askorekin lan egin ohi zuten baina guztiek xehetasun desberdinak zituzten. Oso zaila egiten zitzaien arazo honi aurre egiteko behar zen adorea falta zuten emakumeekin elkarrizketak izatea.

Eskaileretatik urrats dardaratsuz igotzen zen, maratoni bat egin balu bezala. Nekearen eta urduritasunaren arteko nahasketa zeukan beste pertsonarekin topo egiteko unea hurbiltzen zen eta. Gaua laburra eta dibertigarria izan zen koadrilako lagunekin noizean behin topatzea gogoko baitzuen. Tragoxka batzuk hartu eta antzinako egoerak gogoratzea eguneroko ohikeriatik irtetzeko ona zen. Gau hartan izugarri gozatu zuen betiko lagunekin, eta denek etxera joatea erabaki zutenean, bera oso nekaturik zegoen. Hala ere, segurtasun eta ongizate gehien ematen zion eginkizun hori praktikan jartzeko asmotan ondo baino hobeto zegoen.

Izan zen etxeko atera heldu eta, zeharo irtenda eta mozkortuta zegoenez, denbora luze eman zuen etxeko giltzak atera arte. Txirrinari eragitea pentsatu zuen baina azkenean ezetz erabaki zuen. Giltza sartzerakoan, etxean inor ez zegoela berehala konturatu zen. Orduan, itzelezko etsipena jasan zuen, bere buruari botere une hori emango zion persona etxetik urrun baitzegoen. Arrakasta handia izango duzularen ustean zaudenean bezalakoa da eta bapatean, momentua benetako porrot bihurtzen da. Atsekabe garratza bezakaloa da. Hori zela eta, bere barruan zeukan gorrotoa eta amorrua bota beharrean hartu zuen gosariak zapore garratza izan zuen eta guztiz haserreturik oheratu egin zen. Hain haserretuta joan zen ohera, non ez zen lo hartzeko gai. Esnatu zenean, alkohola zela eta izugarrizko buruko mina izatearen egoera hura ezagun egin zitzaion. Utzikeriak harrapatu zuen lehenengo aldia ez zen eta igande hori ia bukatuta zegoen. Hala ere, zerbait jan ostean telebistan zeuden ez ikusgarri telesaioretan denbora eman zuen eta seiak aldera kaleratu egin zen beste lagun batzurekin topatzeko asmotan. Hiruzpalau ordu eman zuen lagun batzurekin etxera itzultzeko ordua heldu arte. Betiko moduan, sekula ez zuen etxera joateko gogorik baina orduan nekeak berarengan egin zuen eragina.

Berrogeita sei urteko emakume horrengan gogoia zuelarik, garajeko atletik sartzen ari zen. Ez zekien zer gertatuko zen harekin. Hasieran beti salaketak jartzera animatzen ziren baina orduak pasata, normalean berriro abiatu egiten ziren ertzainetxera salaketak kentzeko gogoz. Etxera sartu zenean, inor ez egoteak ez zion arreta deitu ohituta zegoen eta. Orduan, oso nekaturik egon arren etxeko garbitasuna egitea tokatu zitzaion eta geroago sofan etzanda egoteko baimena eman zion bere buruari.

Etxeko atetik sartu zen afaria prestatuta egongo zela pentsatuz. Gerta dakizun gauzarik onena da, bere buruari esan zion, ezer ez egitea eta zuretzat dena eginda izatea. Afaltzeko mahaiaren gainean zegoena ikusterakoan, esfortzua eta lana eskertu beharrean, ez zuela gogoko esan zion. Bere emaztea iraintzen hasi zen Amaia erantzuteko gai izan barik. Zoritxarrez, Amaia, egun horretako lana zela eta oso nekaturik aurkitzen zen. Hala ere, jasan behar izan zuen egoera hau normaltzat jo zuen. Ezer ez ziola esango erabaki zuen. Afaltzeari ekin zioten eta bukatzean, bera sofan etzanda zegoen bitartean Amaiak den-dena jaso egin zuen. Oheratzeko gogoia zeukan baina ezin izan zen oheratu senarra bera iraintzen nekatu arte.

Hurrengo egunean, senarrak lan egin behar zuen. Etxetik alde egin zuenean, Amaiak sakonki arnasa hartu zuen. Ohetik altxatzea zaratarik gabe, bakean gosaltzea eta lanera joan behar ez izatea eguneko unerik liluragarriena iruditzen zitzaion. Egun guztiak hau bezalakoak izango ahal dira, pentsatu zuen. Zoritxarrez, aparteko egunak ziren. Arratsaldean, Amaia bere zain zegoen erosketak egiteko asmoz. Senarra etxera itzuli zenean, bera bakarrik joan zedila esan zion emakumearen eginbeharrak baitziren. Bere ustez, etxeko eta etxerako lanak Amaiaren kontuak ziren. Azken finean, ez zuela ezertarako balio izaten esan **ohi** zion. Emakumea, kexa egin barik, gizonari gustatzen ez zitzaion zerbait erostearen beldurrez erosketak egitera joan zen.

Egun batzuk atzean utzi zituen Amaiak, eta lanera joan behar izan zuen. Egundak horretan tratatu txarra jasandako berrogeita sei urteko emakumearekin beste elkarrizketa bat izan zuen. Biktima honen azalpenak erabat harritu egin zuen Amaia, aurrera egingo zuela esaterakoan. Bere senarrari banatzea eskatu zion eta bizitza berria hasteko asmoz zegoen. Bere buruari begirunea erakutsi nahi zion eta bere bizimodua aukeratu ahal

izatea. Hainbeste identifikatu zen biktima harekin, non Amaia hasi zen pentsatzen bere orainaldian eta etorkizunean.

Etixerako bidea hartu zuenean, Amaia zerbaitek bere bizitza alda zezakeelakoan zegoen. Hamarrak inguru ziren senarra etxeratu zenean. Emazteak zuela ordu erdi afaldu zuen eta sofan eseritzen ari zen. Senarrak ea zer zeukan afaltzeko galdetu zionean, Amaiak berak presta zezala erantzun zion. Erantzun horrek harritu egin zuen txarto entzun zuela pentsatuz. Horri ez zeritzon ondo eta betiko berba itsusiak esaten hasi zen. Baina, oraingo honetan, Amaia ez zen isildu zerbitzari lanak egiteko ez zegoela erantzunez. Erantzun hori espero ez zuenez, senarra argudiorik gabe geratu zen. Sekula ez zuen bere emaztea jo baina kasu horretan emaztearen aurkako argudioak ez aurkitzeak, berari zaplastako bat ematera bultzatu zuen. Elkarrekin borrokan aritu ziren Amaiak bere besoetatik askatzea lortu arte eta etxetik ihes egin zuen. Ikara une hori berria izan zen berarentzat eta horrek bere ideiaz aurrera jarraitzea eragin zion. Zeharo ikaratuta, lan egiten zuen ertzainetxera joan zen salaketa jartzeko asmoz, eta egiten ari zenaz oso konbentziturata, bere bizitza aldatzearen erabaki tinkoa hartu zuen. Merezki zuelakoan zegoen. Prozedura oso ondo ezagutzen zuen eta prozesua oso gogorra izango zela jakin bazekien. Bere lankideek jakin zutenean, berriak harritu egin zituen. Amaiak normalean lanean segurtasuna erakusten zuen eta inoiz ez zien arazo honi buruz hitz egin.

Egun batzuk geroago, Amaia edonoren beldur zen kaleetan zehar bakarrik zihoanean. Epailleak urruntze neurriak agindu zituen. Hala ere, berak babesik gabe ikusten zuen bere burua. Orain, inoiz baino gehiago, honelako kasuetan biktimek aitortzen zizkieten istorioak ulertzen zituen. Lekurik seguruena bere lantokia zen.

Amaia bere lagunekin Espainiako hegoaldera oporretara joan zen. Hantxe, ezezagun zenbakidun telefono batetik deitu zuten. Ezezagun deiak normalean hartu ez arren, hartu egin zuen. Hizketakidearen ahotsa ezagun zitzaion, horregatik oso artega jarri zen. Hala ere, hizketaldiaren tonu eta edukia guztiz ezezaguna Amaiaarentzat. Senarrak bazekien ezin zela berarekin harremanetan jarri baina behar zuen. Amaiak solasaldi hori senarraren kontra erabil zezakeela bazekien ere, ez zuen egin nahi. Amaia barkamena eskatu zion, oso damututa zegoela eta ez zuela emazte on bat baloratzen jakin esan zion. Ez zion beste aukera bat eskatu, erregutu baizik. Distantzia zela eta, oso baketsu zegoen Amaia. Haien lotura bukatutzat eman zuela eta biek bizitza berriak hasteko abaguneak zituztela leuntasunez esan zion. Senarrak beste aukera bat erreguka eskatuz negarrari ekin zion baina Amaiak, lehengo era berean, arrazoibide berbera bota zuen. Hiru segundoko isilunearen ostean, senarra biktima mozorrotu zen eta ahots ahulaz agur egin zuen. Zorionez, Amaiak urte askotan zehar jasandako amesgaizto garai hori bukatutzat eman zuen